



HERNANI

Gehiengo osoa berriro, EH Bilduk

Xabier Lertxundi izango da alkatea, gehiengo osoa lortuta; 11 zinegotzi izango ditu EH Bilduk. EAJ-PNV izan da bigarren, 6 zinegotzirekin, eta Elkarrekin Podemos-OH eta PSE-EEK bina lortu dituzte. Gora egin dute denek, Elkarrekin Podemos-OH eta PPK izan ezik. /2-3

EREÑOTZU

Ia erabateko babes, Ereñotzu Ekinezek

Parte-hartzeak gora egin du Ereñotzun, eta %65,14ak eman du botoa, duela lau urte baino %5,05ek gehiagok. Horietatik, %97,74ak eman zion botoa, Unai Erroitzena Gamioeren taldeari. Bera izango da, Ereñotzuko Auzo Udaleko alkate. /3

ASTIGARRAGA

Gobernu aldaketa, gehiengo osoarekin

Gobernu aldaketa izango da Astigarragan. Parte-hartzea bi puntu igota, gehiengo osoa lortu du EH Bilduk, eta beraz, Xabier Urdangarin Lasa izango da alkate, 7 zinegotzirekin. Oposizioan izango dira EAJ-PNV, 5 zinegotzirekin; eta PSE-EE, bakarrarekin. /4

ARANO

Botoen %76,27a, Herri Aierrizek

Aurreko hauteskundeetatik behera egin du parte-hartzeak, pixka bat, Aranon. Baina bozkatzera joan zirenetatik, %76,27ak eman zion babes, Herri Aierriz taldeari. Hori horrela, Joxan Ruiz Miner izanen da Aranoko alkate, datozen lau urteetarako. /5

GOIZUETA

Babes zabalagoa, EH Bilduk

Duela lau urte baino errolda txikiagoa izanda ere, jende gehiagok eman du botoa Goizuetan: %74,32koa izan da parte-hartzea. Eta duela lau urte baino babes zabalagoa jaso du EH Bilduk. Unai Miranda Berroeta izanen da, Goizuetako alkate. /5

Zurekin **HERNANI** gara

Mila esker EH Bilduren proiektuarekin bat egin duzuen guztioi.

Elkarrekin, Hernani hobetzeko lanean jarraituko dugu.

ehbildu

MASUSTA EKODENDA

OSPATU GUREKIN
37. URTEURRENA
OSASUNA
ZAITZEN

Hilabete bukaerara
arte deskontuak,
dastaketak...

ANDRE KALEA, 43 - HERNANI
Tel.: 943 555 710



FUNERARIA
ORBEGOZO
BEILATOKIA

**Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora**

24 orduko tfnoa.

943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com

HAUTESKUNDEAK 2019 **HERNANI**

EH Bilduk lortu du berriro gehiengo absolutua, eta 11 zinegotzi izango ditu

Xabier Lertxundi izango da alkate. EAJ-PNV izan da bigarren indarra, eta 6 zinegotzi izango ditu; ia lau puntutan igo du boto kopurua. Elkarrekin Podemos-OH eta PSE-EE bina zinegotzirekin geratu dira, errolda haunditu bada ere; bi puntu egin du behera aurrenekoak, eta puntu erdia gora, bigarrengoak.

ZINEGOTZI gehiago izango dira Hernaniko Udalean erroldak gora egin duelako, baina gehiengo absolutua lortu du EH Bilduk, berriro. Horrela, Xabier Lertxundi izango da alkatea, eta 11 zinegotzi izango dira denera. 4.631 boto lortu ditu; 2015ean baino 449 boto gehiago.

Bigarren indarra EAJ-PNV izan da, eta 6 zinegotzi lortu ditu. 2.642 hernaniarrek eman diote botoa; 2015ean baino 571 gehiagok.

Hirugarren indarra Elkarrekin Podemos-OH izan da, baina 2015ean baino 97 boto gutxiago jaso ditu; 1.348. Bi zinegotzi izango ditu.

Bi zinegotzirekin geratu da PSE-EE ere, baina 2015ean baino 155 boto gehiago lortuta; 1.232.

PPri dagokionez, ez du ordezkariarik lortu aurten ere, eta 2015ean baino 92 boto gutxiago jaso ditu; 285.

Gehiengo absolutua, 13 botoren aldearekin

Berriro ere gehiengo absolutua lortu du EH Bilduk, laugarrenez. Aurrenekoa Euskal Herri-tarrok-ek lortu zuen 1999an; bigarrenkoa eta hirugarrenkoa EH Bilduk izan du aurreko bi legegintzaldietan, eta laugarrena izango du oraingoa.

Hala ere, atzoko emaitzen arabera, 13 botoko aldeari esker lortu du gehiengo. Elkarrekin Podemos-OHren aldeko 13 boto gehiago izan balira, hark lortuko zukeen hirugarren zinegotzia, eta 10ekin geratuko zatekeen EH Bildu.

Parte hartzeak, gora

Orokorrean, parte hartzeak gora egin du, 2015arekin alderatuta; %60,85ekoa izan zen orduan, eta %64,66koa oraingoa. Abstentzioak, beraz, behera egin du: %39,15etik %35,34ra. Eta boto zuriek eta baliogabeek ere behera egin dute; %2,20tik %1,35era eta %1,46tik %1,20ra.

Denera, 15.748 hernaniar zeuden botoa ematera deituta, eta 10.208k eman dute botoa. Horietatik, %45,92k egin du EH Bilduren alde (2015ean, %45,63k);



Hernanin lau puntu egin du gora udal hauteskundeetako parte-hartzeak; %60,85etik 2015ean, %64,66ra atzo.

Laugarrenez lortu du gehiengo absolutua EH Bilduk. 13 boto falta izan ditu Podemosek hori aldatzeko.

%26,20k EAJ-PNVren alde (2015ean, %22,60k); %12,40k Elkarrekin Podemos-OHren alde (2015ean, %14,71k); %12,22k PSE-EEren alde (2015ean, %11,75ek); eta %1,91k PPren alde (2015ean, %3,11k).


Aurtengoan, diferentzia eragin duena hernaniar kopurua izan da. 20.000 biztanletik gora izatera iritsi da, eta beraz, lau zinegotzi gehiago izango dituzte herritarrek Udalean: 21. Horietatik 11 izango dira EH Bildukoak; 6, EAJ-PNVkoak, eta bina, Elkarrekin Podemos-OH eta PSE-EEkoak.

EH BILDU:

XABIER LERTXUNDI
«Hitz egin eta negoziatzeko prest gaude»

Xabier Lertxundi, datorren lau urtetarako alkatea, «oso pozik» agertu zen gehiengo absolutua lortuta, nahiz eta ez zuen helburu nagusi. «Zentsoa haundituta, zaila zen gehiengo absolutua lortzea, eta ez zen gure obsesioa. Jakin nahi genuena zen ea herritarrek guregan konfiantza zuten edo ez, eta orain 4 urte baino boto gehiago lortu dugunez, ikusi dugu hernaniarrek ulertu dutela gure lana, eta konfiantza eman digutela hurrengo lau urtetan lanean segitzeko. Dena den, beti esan izan dugun bezala, gainontzeko alderdiekin hitz egin eta negoziatzeko prest gaude, eta horretan hasiko gara datorren astetik aurrera».

BOTO KOPURUA



EAJ-PNV:

ANDONI AMONARRAIZ

«Gora egiten jarraitzen dugu»

«Gazi-gozaok» izan dira emaitzak EAJ-PNVrentzat, Andoni Amonarraiz alkategaiaren esanetan. «EH Bilduk gehiengo absolutua lortu du, eta uste genuen ez zuela lortuko. Orain arteko politikekin jarraitzen badu, ezer gutxi egin ahal izango dugu. Hala ere, gure lan ildoekin jarraituko dugu, hauteskunde guztietan gora egiten jarraitzen baitugu».

ELKARREKIN PODEMOS-OH: JAIONE ARISTREGI

«Espero baina emaitza okerragoak izan ditugu»

«Erralistak» izanda, «espero baina emaitza okerragoak» lortu dituztela azaldu du Jaione Aristregik. «Lan asko egin dugu lau urtetan, eta dezepzio txiki


bat izan da. Hernaniarrek hitz egin dute, eta gehiengo absolutua nahi dute; gure ustez ez dira onak, nahi diren politikak egiten direlako, oposizioa mugatuta utziz. Baina lau urtez gogoz eta gogor lan egiteko gaude, ea zer gertatzen den. Jarraitu egingo dugu lanean».

PSE-EE:

RICARDO CRESPO

«Gure botoak berreskuratzen ari gara»

Emaitzak ikusi berritan, «hausnarketa egiteko denborarik gabe», baina «nahiko pozik» agertu zen Ricardo Crespo, «boto kopuruan igoera lortzeagatik». Dena den, «gehiengo absolutuarekin oraindik ez apurtzeak pena» eman izana ere nabarmendu zuen. «Parte-hartzea gehiago igota, agian lortuko genuke apurtzea. Baina nahiko gurturta geratu gara, gure botoak berreskuratzen ari garelako». ||



HAUTESKUNDEAK 2019 EREÑOTZU

Ereñotzu Ekinezen taldeak, ia erabateko babesa

Partehartzeak bost puntu gora eginda, %97,74ak bozkatu du Ereñotzu Ekinezen alde, Auzo Udalerako hauteskundeetan. Hernaniko Udalerako, EH Bilduk alde haundiarekin irabazi du.

PARTEHARTZEAK gora eginda itxi zituen atzo Ereñotzuko, Auzo Udalerako hauteskundeak. Eta boto gehiagorekin, babes zabala jaso du Ereñotzu Ekinezek, ia erabatekoa: %97,74ak bozkatu zuen, taldearen alde.

Guztira, 312 lagunek eman zuten botoa (%65,14; 2015ean baino %5,05 gehiago). Horietatik, 303 lagunek eman zituen babesa Unai Erroitzenea Gamio buru duen taldeari; zazpi izan ziren boto zuriak, eta beste bi, baliogabeak. Hori horrela, Erroitzenea izango da, Auzo Udalerako alkate.

EREÑOTZU EKINEZ: UNAI ERROITZENEA GAMIO

«Osatu genuen taldeari, bere babesa berretsi diote»

Auzo Udalerako hauteskundeetan «oso balorazio positiboa» egin zuen Unai Erroitzenea Gamio, %65,14ak eman zuten botoa atzo, 2015ean baino %5,05ek gehiagok; eta 312 bototik, 303 jaso zituen alde Ereñotzu Ekinezek.

Ereñotzu Ekinezen alkategaiak, emaitzak ezagutu berritan. Nabarmendu zuen, taldeari «babesa berrestea» suposatu zutela atzoko emaitzek: «bere garaian, taldeko izenak proposatu eta erabaki zirenean jaso genuen babesa, berretsi egin dute ereñotzuarrek»; bereziki, ikusita partehartzeak ere gora egin duela, eta «jende asko» gerturatu zela bozkatzera.

Erroitzeneak adierazi zuen, «ezustekorik gabeko eguna» izan zela atzokoa: «taldeko guztiok elkarrekin bazkaldu dugu, giro onean eta lasaitasunez».

Hernaniko Udalerako eta Gipuzkoako Foru Aldundirako, EH Bildu nagusi aldearekin Auzo Udalerako ez ezik, Hernaniko Udalerako zein Gipuzkoako Foru Aldundirako ere bozka-



Ereñotzuar bat, bozka ematen atzo goizean, Auzo Etxeko aretoan.

tu zuten ereñotzuarrek. Eta bietarako, EH Bildu izan zen bozkatuena, auzoan.

Hernaniko Udalerako, 314 lagunek eman zuten botoa; horietatik bost zuriak, eta beste bost baliogabeak. EH Bilduk 228 boto jaso zituen; EAJ-PNVk 63 boto; Elkarrekin Podemos-Orain Hernanik 10 boto; eta PSE-EEK hiru.

Antzekoak izan ziren Ereñotzun jasotako emaitzak, Foru Aldundirako ere. 315 boto izan ziren guztira; tartean, sei baliogabe, eta bi zuri. EH Bilduk 229 boto jaso zituen; EAJ-PNVk 64 boto; Elkarrekin Podemos/Ezker Anitza/Equo Berdeak koalizioak bederatzi boto; eta Aulki Zuriak taldeak boto bat. ||

Antzekoak izan ziren Ereñotzun jasotako emaitzak, Foru Aldundirako ere. 315 boto izan ziren guztira; tartean, sei baliogabe, eta bi zuri. EH Bilduk 229 boto jaso zituen; EAJ-PNVk 64 boto; Elkarrekin Podemos/Ezker Anitza/Equo Berdeak koalizioak bederatzi boto; eta Aulki Zuriak taldeak boto bat. ||

HAUTESKUNDEAK 2019 ASTIGARRAGA

Xabier Urdangarin izango da Astigarragako alkate, EH Bilduk gehiengo osoa lortuta

Botoen %100a zenbatuta, 7 zinegotzi lortu ditu EH Bilduk; 5, EAJ-PNVk; eta bakarra, PSE-EEK. Emaitza horien aurrean, «oso pozik» agertu da Xabier Urdangarin, EH Bilduren alkategaia; eta emaitzak «txarrak» izan direla onartu du Zorione Etxezarragak, EAJ-PNV-ren zerrendaburuak. Parte-hartzeak bi puntuko igoera izan du.

UDAL Gobernu aldaketa izango da Astigarragan. 7 zinegotzi lortuta, gehiengo osoarekin, EH Bildu izango da udal gobernuan datozen lau urteetan, 2019tik 2023ra bitarte. Xabier Urdangarin Lasa bihurtuko da Astigarragako alkate, ekainaren 15ean egingo den inbestidura-plenoan. 1563 herritarren babesa jasota izango da hori, erroldaren %49,10arena.

Oposizioa pasako da, ordea, Zorione Etxezarraga Ortuondo buru zuen EAJ-PNVren taldea; 6 zinegotzi izatetik, 5 izatera pasa da. Etxezarragaren zerrendak 1252 boto izan ditu, %39,33a.

Zinegotzi izaten jarraituko du, baita ere, PSE-EEKo Mikel Duran Gonzalok. Zinegotzi bakarra lortu du oraingoan ere, 269 herritarren babesarekin.

Parte-hartzeak, gora

Parte-hartzean ere aldaketak izan dira Astigarragan, 2015eko udal hauteskundeekin alderatuta. %2,05eko igo da botoa eman duen herritarren portzentajea; %65,74ak eman du botoa (2015ean, %63,61), hau da, denera 3214 herritarrek. Horietatik, 3183 izan dira baliodunak; 52 zuriak (%1,62), eta 31 baliogabeak (0,96). Erroldaren %34,26 abstentitu egin da, hau da, 1675 herritar.

EH BILDU

XABIER URDANGARIN

«Gure helburua hori zen, 7 zinegotzi lortzea»

Emaitzak eskuartean, «oso-oso pozik» agertu da Xabier Urdangarin Lasa EH Bilduko alkategaia. «Gure helburua hori zen, 7 zinegotzi lortzea, izan ere, bagenekien hori horrela ez bazen, EAJ-PNVk eta PSE-EEK akordioa egingo zutela. Eta lortu dugu». Horren aurrean, «oso pozik» daudela dio behin eta berri, eta onartzen du: «jendeak lan asko egin du. Ustedut kanpaina ona egin dugula, programa osatzen eta jendearekin egoten saiatu gara».



Goizean zehar jende asko bertaratu zen Herri Eskolara botoa ematera.


EAJ-PNV

ZORIONE ETXEZARRAGA

«Bai Gobernuan baita oposizioan ere, gure jarrera eraikitzailea izango da»

Balorazio «txarra» egiten du, ordea, Zorione Etxezarraga Ortuondo EAJ-PNVren zerrendaburuak: «emaitza txarrak izan dira. Baina demokrazia horrelakoa da, herriak eman du bere erabakia, eta guk onartu besterik ez daukagu», dio. Hori horrela: «oposizioa joango gara. Eta bai Gobernuan baita oposizioan ere, gure jarrera eraikitzailea izango da. Jarraituko dugu guztiontzako Astigarraga bat egiten; bizi-kalitate eta zerbitzu hoberenak dituenak». Etxezarragaren esanetan: «Jarraituko dugu elkarbitza hobea egiten duen Astigarraga baten alde lan egiten». ■

2019 eta 2015 konparaketa
ZINEGOTZI BANAKETA ASTIGARRAGAN



HAUTESKUNDEAK 2019 GOIZUETA

%74,32ko partehartzearekin, duela lau urte baino babes zabalagoa jaso du EH Bilduk

437 lagunek eman zuten botoa, eta horietatik 405 izan ziren alderdiarentzat.

ERROLDA txikiagoa izanda ere, jende gehiagok eman zuen botoa atzo, Goizuetan, Udal Hauteskundeetan. %74,32koa izan zen partehartzea, duela lau urte baino sei puntu gehiago (%68,25). Guztira, 437 lagun gerturatu ziren bozkatzera, eta horietatik, 12 boto izan ziren zuriak, eta 20 baliogabeak.

Gainerako guztiak, 405 boto (%97,12a), EH Bildurentzat izan ziren, eta beraz, Unai Miranda Berroeta izanen da alkate.

EH BILDU:
UNAI MIRANDA BERROETA
«Duela lau urteko egoera berean, emaitza hobekak izan dira orain»

Kontaketa bukatuta eta emaitza ofizialak mahai gainean, «balorazio sakonagoak egiteko», azaldu zuenez.

Partehartzea sei puntu igo zen: errola txikiagoa izanda, boto gehiago izan ziren.

razio positibo» egin zuen Unai Mirandak, nahiz eta «bihartik (gaurtik) aurrera» izanen den garaia, «balorazio sakonagoak egiteko», azaldu zuenez.

Edozein kasutan, Mirandak nabarmendu zuen jende gehiagok bozkatu izana, errola txikiagoa izanda ere; eta pozik agertu zen emaitzekin: «duela lau urteko egoeran, jende gehiagok hartu du parte, eta boto gehiago jaso ditugu». Herritarrei eskertu zien babesa, eta adierazi zien, «errazena egina» dagoela: «orain



Zenbait goizuetar, botoa ematen atzo, Xalto eskolako hauteslekuan.

lan egitea tokatzen da, eta guk lan eginen dugu herriarentzat; baina batez ere, herritarrekin eginen dugu lan».

Nafarroako Parlamenturako ere, EH Bildu nagusi
EH Bildu nagusitu zen atzokoan Goizuetan, baita ere, Nafarroako

Parlamenturako bozetan. 436 lagunek eman zuten bozka, eta beraz, sei puntu igo zen partehartzea horietan ere, Udal Hauteskundeetan bezala. Horietatik bost boto izan ziren baliogabeak, eta hiru zuriak. Eta baliogabek, 310 boto izan ziren EH Bildurentzat, pixka bat behera

eginda (331 lortu zituen 2015 urtean). Bigarren indarra Geroa Bai izan zen, 95 botorekin, aurrekoetatik nabarmen gora eginda (61 izan zituen).

11 boto lortu zituen Navarra Sumak, bost boto Podemosek eta PSNk; eta boto bana Izquierda-Ezkerrak eta VOXek. ||

HAUTESKUNDEAK 2019 ARANO

Botoen %76,27a, Herri Aierriz taldeak

Partehartzeak behera egin du pixka bat Aranon, eta %59,8ak eman du botoa. Babes zabala jaso du, Joxan Ruiz taldeak.

BOTOEN %76,27a jasota izanen da Aranoko alkate, Joxan Ruiz Miner, Herri Aierrizeko hautagaia. Partehartzeak behera egin zuen pixka bat atzokoan, 2015 urteko Udal Hauteskundeekin alderatuz: 61 lagunek eman zuten botoa, %59,8ak (2015ean 64 izan ziren, %65,31). Boto guztietatik, emaitza ofizialen arabera, sei izan ziren zuriak, bi baliogabeak, eta 45 lagunek bozkatu zuten, Herri Aierriz alde.

HERRI AIERRIZ:
JOXAN RUIZ MINER
«Indarra ematen digu partehartzeak, legealdia hasteko»

Emaitzak ezagutu ondoren, Joxan Ruizek nabarmendu zuen

EH Bilduk lortu zituen boto gehien, Nafarroarako zein Europarako Azkeneko horietan, bederatzi boto izan ziren Extremeños Prex Crex alderdiarentzat.

«partaidetza nahiko altua» izan zela atzokoan: «Aralarko San Migelen bisita jaso dugu, eta akaso horrek lagunduko zuen, jende gehiagok bozkatzeko».

Ruizek azaldu zuen, herritarren babesa jasotzea suposatu zutela partehartzeak eta aldeko botoek: «indarra ematen digu, hainbeste jende bozkatzera gerturatu izanak, legegintzaldi berriarako». Horregatik, «eskerrak eman» nahi izan zizkien guztiei: «saiatuko gara, lana ondo egingen herriaren alde».

EH Bildu nagusi Aranon, Nafarroako Parlamenturako
Nafarroako Parlamenturako ere bozkatu zuten atzokoan aranoarrek, eta EH Bildu izan zen nagusi. Guztira, 62 lagunek eman zuten bozka; horietatik bat baliogabea. Eta 39 boto jaso zituen EH Bilduk. Geroa Bai izan zen hurrengoa, 15 botorekin; lau lortu zituen Navarra Sumak; bi boto Podemosek; eta boto bat PSNk.

Eta atzo zuten bozka emateko zita, Europako Parlamenturako ere. Horietan izan zen, da-



Ainhua Ansa orain arteko alkatea, botoa ematen atzo. Bere atzean, Joxan Ruiz.

tu deigarri bat: bederatzi bozka izan ziren, Extremeños Prex Crex alderdiarentzat. Guztira, 61 lagunek eman zuten botoa Europarako, eta horietatik bana, baliogabea eta zuria. EH Bildu izan zen alderdi bozkatuena, 30 botorekin; 12 boto jaso zituen

Geroa Bai-Europa Solidarioaren Aldeko Koalizioak; hiru boto Partido Animalista Contra Maltrato Animal taldeak; bi boto PSOEk; eta boto bana jaso zuten Movimiento Independiente Europa Latino, Unidas Podemos eta Piratak taldeek. ||

■ HAUTESKUNDEAK 2019

EAJk irabazi du Gipuzkoan eta laukoak ez du inongo gehiengorik lortu Nafarroan

Jeltzaleen eta EH Bilduren artean 14 milako botoen aldea egon da. Batzarkideetan 20 lortu ditu EAJk eta EH Bildu izan da bigarren 17rekin. PSE-EE izan da hirugarren.

GIPUZKOAKO Batzar Nagusietako hauteskundeak EAJ-PNVk irabazi zituen Gipuzkoan. EH Bildu izan da bigarren PSE-EE hirugarren, Podemos laugarren eta PP bosgarren. Bost alderdi horiek lortu dituzte ordezkariak Foru Aldundian. EAJk 20 batzarkide izango ditu eta EH Bilduk 17. Bi gehiago lortu dituzte jeltzaleek eta berdin ezker abertzaleak. PSE-EEK batzarkide berdinak lortu du, bederatzi, eta Podemos alderdia sei izatetik laura pasa da. PPK bere batzarkidea mantendu du.

Botoetan PNV eta EH Bilduren aldea 14 mila boto ingurukoa izan da. Jeltzaleek 130 mila botoak pasa dituzte dituzte eta Bilduk 115 mila baino gehiago lortu dituzte. %99,84arekin zenbatuta 130.035 eta 115.569 zituzten. Portzentaietan %35,61 eta %31,65. PSE-EEK 62.382 boto lortu ditu botoen %17,08rekin. Podemosek 32.574 boto lortu ditu, botoen %8,92rekin. PPK berriz 17.074 boto eskuratu ditu, %4,67rekin.

Nafarroan Navarra Sumak 20 eserleku lortu ditu, PSE-EEK 11, Geroa Baik 9, EH Bilduk 7, Podemosek 2 eta I-Ek 1

Nafarroan berriz Navarra Sumak irabazi ditu Foru hauteskundeak 20 eserlekurekin Nafarroako Parlamentuan oraindik ere %100 zenbatu gabea zegoenean. Hala PSOE izan zen bigarren 11 eserleku-



Partaidetza asko igo zen Europako hauteskundeetan eta partaidetza zerbait igo zen Batzar Nagusi eta Forukoetan.

Emaitza hauekin Gipuzkoan ez dira gauzak ezerrez aldatuko Gobernuan, bai ordea Nafarroan.

rekin, Geroa bai laugarren bederatzirekin, Bilduk zazpi lortu zituen, Podemosek bi eta Izquierda-Ezkerrak bakarra. Azkenengo eserlekua dantzan zebilen Navarra Suma eta EH Bilduren artean. Hori bai, orain arteko Nafarroako Go-

Alderdi abertzaleek emaitza onak izan dituzte Gipuzkoan eta Podemosek galdu du botoen portzentai nagusia.

bernuan egon den laukoak gehiengo galdu du. Lauek 26 eskainu zituzten eta orain berriz 19 edo 20, azken eserleku hori nork irabaziko duen zai. Geroa Bai eta EH Bildu mantendu egin dira gutxi gora behera, baina Podemosen behe-

Navarra Suma eta EH Bilduren arteko eserleku bat dantzan zegoen oraindik ere azken orduan.

rakada haundia izan da eta horrek PSOEren igoera ekarri du.

Podemosek bost galdu ditu eta alderdi sozialistak berriz lau irabazi ditu. Orain, ikusi egin behar alderdien artean zein mugimendu dagoen. ■

Europakoetan PSOEk irabazi du Espainian aldearekin

Izaskun Bilbao, Fernando Barrena eta Pagazaurtundua Bruselasera.

EUROPEAR hauteskundeak lehenengo aldiz Udal eta Foru Aldundikoekin batera egin ziren eta horrek partaidetza izan zuen izugarritzko eragina, %45etik %64ra igo zen. Emaitzetan aipagarria da PSOEk irabazi dituela hauteskundeak Espainian 20 eserlekurekin.

Euskal Autonomi Erkidegoan CEUS izan da alderdi bozkatuena eta Nafarroan PSOE. Ezker Abertzalea Orain Errepublikak koalizioaren barruan joan da eta guztira hiru ordezkari lortu ditu. Horrek esan nahi du Fernando Barrena izango dela europarlamentari, baita EAJko Izaskun Bilbao ere. EAJ, CEUS koalizioaren barruan joan da hauteskunde hauek eta Bilbaoren ordezkari lortu dute. Gero, Maite Pagazaurtundua hernaniarra ere europarlamentari izango da Ciudadanosekin.


Bailara osoan Orain Errepublikak garaile

Hernanin Europar Batasuneko parlamenturako hauteskudetan Orain Errepublikak taldeak lortu ditu boto gehien alde haundiarekin. Astigarragan, Ereñotzun, Aranon eta Goizuetan ere alderdi bozkatuena izan da.


Europako hauteskundeak zirkuskripzio bakarrek hauteskundeak dira, beraz Espainia osoko datuak hartzen dira kontuan ordezkariak banatzeko orduan. PSOEk 20 ordezkari lortu ditu, PPK hamabi, Ciudadanosek zazpi, Podemosek sei, Orain Errepublikak hiru, VOXek ere hiru, Junts por Catalunya eta CEUSEk bakarra.

Lau zinegotzi gutxiago lortu ditu PPK eta PSOEk berriz sei gehiago, Ciudadanosek bost irabazi ditu eta Podemosek bat igo da. CEUS hirutik batera jeitsi da. Beraz, PSOEk erraz irabazi ditu hauteskunde hauek. ■

2019 eta 2015 konparaketa - GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK



2019 eta 2015 konparaketa - NAFARROAKO PARLAMENTUA



■ HERNANI UDALA

Hainbat bide eta herri-bide asfaltatzeko lanak, lizitaziora

Udalak obrak kontratatzeke pleguak argitaratu berri ditu, eta esleipena egin ondoren, lanak udaran hastea aurreikusten dute.

ASFALTATZE-kanpaina abiatu du Udalak; horretarako, obra horiek kontratatzeke pleguak argitaratu berri ditu, eta eskaintzak jasotzeko epea irekita dago. Horiek aztertuta, esleipena egingo dute, eta asmoa da lanak udara aldean hastea. Lizitazioaren prezioa 536.985,56 eurokoa da, eta lanak burutzeko epea bi hilabetetako da.

Udalak ohar baten bidez azaldu bezala, planaren helburua da «herriko zenbait kale eta herri-bideetako zoladura berri-zea edota birgaitzea. Eredu batzuetan zoladura osoa asfaltatuko da, eta beste batzuetan, aldiz, zatiak konponduko dira, puntu zehatzetan dauden arazoak konpontze aldera».

Erroilaburu bidea eta Osinaga bidea, tartean

Udalak konpondu nahi dituen herri-bideen artean daude, hain zuzen, Erroilaburu bidea eta Osinaga bidea.

Aurrenekoa, Martindegitik abiatzen den herri-bidea da. Telleri-Zahar baserriaren inguruan dagoen bidegurutzean hasiko dira lanak (1.000 metroko bidea). Bidegurutzeetako eta jabetza-sarreretako asfalto ere berrituko da, bertan. Gainera, bidegurutzearen inguruan, 110 metroko hormigoizko ubide berri bat eraikiko da.

Bigarrena, Osinaga bidea, Portu auzoan hasten da; bertako bidegurutzean hasiko dira lanak, eta Loidiko bidegurutzea pasa arte asfaltatuko da (1.300 metro). Zoladura berrituko da bai bidegurutzeetan, bide bazterretan, baita jabetza-sarreretan ere. Gainera, Mendipe baserriaren inguruan, maldak aztertuko dira euri-urak etxebizitzetara joan ez daitezkeen.

Abiadura moteltzeko koxkak aldatu, eta plastikozkoak jarriko ditu Udalak; baita ubide bat berritu eta Garbigunearen sarrera asfaltatu ere.

Beste hainbat lan, ere bai

Bestalde, hilerriko lurra ere asfaltatuko da, «kaleen irisgarritasuna bermatzeko eta mantenua errazteko», eta azaleko euri-uren bilketa bideratzeko ubide txikiak egingo dira.

Etxeberri auzoan ere auzoko zati handi baten asfalto berrituko da.

Eta azalera txikiko beste hainbat lan ere egingo dira: Lizeaga auzoko Arantzazu plazako zorua, Karobietako Iturregi kalea, eta hainbat kaleetan dauden zuloak ere bai (Txirrita, Zinkoenea, Zikuñaga Papelera, Akarregi industrialdea, Sagastialde eta Portun).

Lan-baldintzen klausula

Udalak adierazi duenez, pleguetan jasotzen diren baldintzen artean dago lan-baldintzena: «lanak exekutatu dituen enpresak errespetatu beharko ditu hitzarmen sektorialean jasotzen diren lan-baldintzak». ■

■ HERNANI ERRUGBI INKLUSIBOA



Telmo Irureta aktore zumaiaarra ostiralean, Kixkal tabernan.

Telmo Iruretak hasiera, errugbi barneratzailearen ekintzei

Duela urte batzuk murgildu zen Hernaniko Errugbi Elkartearen errugbi barneratzailearen munduan, eta ordutik, gizarte barneratzaileago bat eraikitzea izan dute helburu. Bide horretan, hainbat ekintza egingo dituzte aurtan ere; aurrenekoa ostiralean izan zuten. Telmo Irureta aktore zumaiaarraren eskutik, monologo saioa izan zuten Kixkalen. Datorren asteazkeneko sentsibilizazio saioak emango dio jarraipena; arratsaldeko 18:00etan hasita izango da, Tilosetan. ■

☞ JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

■ HERNANI HERNANIN AIRE GARBIA



Bete egin zen Biteriko gela, aire kalitatearen inguruko hitzaldian, ostegunean.

Aire kalitatearen inguruko datuak, desberdinak

Hernanin Aire Garbia plataformak antolatuta, kutsadurak osasunean daukan eraginaz, eta bereziki, airearen kalitateaz hitz egin zuten txandaka ostegunean, Aitana Lertxundi, Jesus Mari Ibarluzea eta Marcos Tolosak, Ainhua Zalduaren gidaritzapean. Besteak beste, igorlearen arabera, ematen diren datuak desberdinak direla aipatu zuten, eta baieztatu, airearen kutsadurak eragin zuzena duela, osasunean. ■



Kutsatutako aireaz aritu ziren adituak.

Bizitza duin eta kalitatezko lan baldintzen alde!

Asteartean udaletxean egin zen plenoan, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak sailean, zaharren egoitzan zehazki, urte luzez modu irregularrean egon diren hainbat lanpostu edo zerbitzu ordu erregularizatzeko erabakia hartu zen. Honela egoera trakets bati amaiera emateko lehen urratsa eman zen aurrez Musika Eskola, Udal Euskaltegi eta beste zenbait zerbitzutako lanpostuekin egin zen bezala.

Pozteko modukoa zen notizia gazi gozoa bihurtu zen udaleko zenbait talde politikoren posizioen eraginez, plenora gerturatu ginen zaharren egoitzako zenbait langileren haserrea pizteraino. Bereziki mingarria izan zen PNV alderdiko bozeramaile Andoni Amonarrazek klinika laguntzaile lanpostuak lanaldi osora sortu beharrean lanaldi partzialera sortzeko eginiko proposamena. Bere "proposamenaren" arabera Hernanin lanaldi partzialera lan eginda Gipuzkoako sektore pribatuko zaharren egoitzetan lanaldi osora lanean ari diren langileek kobratzen duten adina kobratzea ber-

matuta legoke.

Bere "proposamena" kasualitatez edo ez, asteartean bertan sektore pribatuko adinekoen egoitzetan hitzarmen duin bat aldarrikatzeko Gipuzkoako Foru Aldundia okupatu eta Ertzaintzak arrastaka atera gintuen egun berean egin zuten.

Bizkaiko Diputatu Nagusi den Unai Rementeriak azken egunetan eginiko aipamenean mailan dago PNV alderdiko bozeramaile Andoni Amonarrazek esandakoa.

Borrokan eta greban daude aspaldian adinekoen zaintza lanean dabiltzan langileak, sektore feminizatu prekarioa delako. Aurrerantzean ere zaintza erdigunean jartzen, emakumeak ahaldunduz eta lan baldintza duin batzuen alde borrokan jarraituko dugu PNV eta Andoni Amonarraz gustatu ala ez.

Mirari Duarte Echeverria, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialako Komiteko Lehendakaria eta LAB sindikatuko kidea; eta Eva Uzquidun Carrizo, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialako Komiteko Kidea eta LAB sindikatuko kidea

GAUR Giro goibelarekin jarraituko du eguraldiak gaur ere. Zerua estalita egongo da, eta euria egingo du. Goizean, ordea, euria gubituko egingo da. Eguerditik aurrera, fronte bat iritsiko da. Tenperatura aldaketa haundirik ez da izango. **Min.11° / Max.16°**

BIHAR Giro ezatsegina izango da bihar. Haizea pixka bat indartuko da, eta baliteke traba egitea, eta hotz sententzia areagotzea. Lainoak egongo dira, eta noizbehinka euria egingo du. **Min.10° / Max.15°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** Gaez: **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI BERRIAK ELKARTEA

Iruretagoyena eta Escuderok, saria

500 euroko bi sari banatu ditu Berriak Elkarteak Hernani txartela erabili dutenen artean.



Pasa den astean jaso zituzten haien sariak Iruretagoyena eta Escuderok.

BADAUZKATE saridunak. Berriak merkataria eta ostalarien elkarteak 500 euroko saria banatu du herriko saltokietan Hernani Txartela erabili dutenen artean, eta dagoeneko atera dira bi saridunak. Ainhoa Iruretagoyena izan da horietako bat, Nekane Estetikan erosketari egiteagatik. Eta bigarrena, Jose Ignacio Escudero izan da; Errioguarda Enea jatetxean ordaindu zuten Hernani Txartelarekin.

Pasa den astean banatu zituzten sariak Hernaniko Nafar Ruralaren bulegoan. Bertan izan ziren Mertxe Jimenez, Berriakeko teknikaria; Unai Mendizabal, Nafar Ruraleko zuzendaria; Nekane Lizarribar, Nekane Estatikako jabea; eta Elena Izagirre, Errioguarda Enea jatetxeko jabea. ||

ASTIGARRAGA ELIZA



Jaunartzea egin zuten hamalau gaztetxoak atzo, elizara sartu aurretik.

Hamalau gaztetxok lehenengo jaunartzea, atzo

Maiatzaren azkeneko igandearrekin, atzo hartu zuten jauna aurreneko aldiz Astigarragako gaztetxoek. Denera, hamalau izan ziren lehenengo jaunartzea egin zuten astigarrak. ||

HERNANI GIPUZKOA BERTSOTAN

Pagola, Zelaia eta Mujika ere, sailkatuta

Sei sailkatu ditu Iraulio Panttalone Bertso Kabiak, Gipuzkoako Txapelketarako.

HERENEGUN jokatu zituzten Gipuzkoa Bertsotan Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren sailkapen faseari zegozkion azkeneko bi saioak, eta, berriro ere, albiste onak izan ditu Hernaniko Iraulio Panttalone Bertso Kabiak.

Dagoeneko bazituen hiru sailkatu: Eñaut Martikorena, A multzoan, eta Iker Ormazabal eta Asier Azpiroz Axi zu-bietarra, B multzoan. Eta aste-buru honetako saioen ondoren, beste hiru ditu, baita ere: Eli Pagola, Iñaki Zelaia eta

Andoni Mujika.

Nahiz eta ez duen asteburu honetan lehiatu, Andoni Mujikaren txartela kolokan zegoen. Azkenean, 17garren sailkatu da A multzoan, eta beraz, juxtu, baina barruan da.

A multzoaren Bergarako saioan izan ziren, ordea, Eli Pagola, Oier Iurramendi eta Beñat Mujika. Pagola besterik ez da pasa.

B multzoan, Iñaki Zelaia Donostian izan zen, eta saio ona eginda, berak ere lortu du sailkatzea, 339 punturekin. ||

HERNANI-ASTIGARRAGA

Ergobiako trenbide-pasabidea, itxita

Euskal Trenbide Sareak jakinarazi du Hernani-Astigarraga zatian egiten ari diren abiadura handiko trenaren obrak direla-eta, gaur itxiko dutela Ergobiako trenbide-pasabidea behin betiko. Goizeko 08:00etan izango da hori; orduetik aurrera, oinezkoek Okendotegi eta Ergobiaren arteko pasabide bat erabili ahal izango dute, eta trafikoa, aldiz, Martutenetik desbideratuko da. ||

HERNANI SAN JOANAK

Aurreneko entsaioa, bihar

San Joanetako Kantaitarako entsaioa egingo dute bihar, 20:30etatik 21:00etara, Biterin. Atera nahi duen oro joan daiteke. ||

IRAGARKI MERKEAK

Lokala alokairuan, 1go pisuan. 17m karratukoa, eta komunarekin. Ofizina baterako egokia. Deitu: 943 27 78 51

LANDANET enpresak KOMERTZIALAK behar ditu. Baldintza ezin hobek: lan-kontratu, soldata finkoa, komisio altuak hilerio eta formazioa enpresaren kontu. **Bidali cv info@landanet.net edo deitu 943 31 86 06**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)



FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu? Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com

- * Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- * Beilatokiak
- * Errausketak
- * Lekualdatzeak
- * Eskelak, koroak...

Zentrala Latsunbe 7, Hernani




HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA